



Mandala propioak sortzeko gida

Argibidea orokorrak

Mandalak nahiz beste irudiak ikasleen ezagutza prozesua ebaluatzeko lagungarri izan daitezke. Kasu hauetan, ikasleek ikasitako eduki eta prozedurak mandala forman islatzea da xedea. Dena den, kontuan izan behar dugu ez dela sekula ere egindako mandalen edertasuna neurtuko. Horren ordean, ikasleak mandala horiek osatzerako orduan ikasitako kontzeptuekin eginiko erabilera eta konexioa baloratuko da, eta baita lana egiterako unean izandako jarrera ere.



Mandala propioak sortzeko gida

4. Simetria gabe apaingarriak lagun

1. Lehenik eta behin, zerrenda itzazu gai honetan landu dituzun eduki eta kontzeptuak beheko taulan.
2. Objektu bera irudikatzeko mila modu daude: marrazki errealista bat egin dezakegu edo, aldiz, marrazki sinpleago bat. Erreparatu hurrengo [esteka honetako](#) mendiaren adibideari:
 - Lehen laukitxoan, saiatu dagokion kontzeptu edo elementua irudikatzen ahalik eta modurik zehatzenean, eta arkatza bakarrik erabiliz.
 - Bigarren laukitxoan, saiatu elementu bera era sinpleagoan irudikatzen. Horretarako, elementu horren ezaugarri adierazgarrienak nabarmendu ditzakezu.
 - Hirugarren laukitxoan, dagokion elementuaren irudirik sinpleena egiten saiatu. Bigarren eta hirugarren laukitxoetarako punta lodiko errotuladorea erabiltzea gomendatzen dizugu, xehetasunak alde batera uzteko.

Teknika bera erabiliz, osatu taulako gainerako laukitxoak.

UNITATEA:		GAIA:	
KONTZEPTUA	1. IRUDIA	2. IRUDIA	3. IRUDIA

Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.




www.mandala-zientifikoak.eus

Mandala propioak sortzeko gida


4. Simetria gabe apaingarriak lagun

3. Mandalaren zirriborria sortzeko ordua da:

- Saiatu edukien zerrenda hori guztia forma geometriko ezberdinen barruan irudikatzen.



- Zirriborria sortutakoan, saia zaitetz zure mandalari hainbat apaingarri gehitzen. Hona hemen zenbait adibide:



Hezkuntza Sailak diruz lagundutako materiala.

 www.mandala-zientifikoak.eus



Mandala propioak sortzeko gida

4. Simetria gabe apaingarriak lagun





Mandala propioak sortzeko gida

4. Simetria gabe apaingarriak lagun

4. Behin betiko mandala

- Mandalaren zirriborroa bukatzean, nabarmendu guztia errotuladore beltz bat erabiliz.

5. Erakutsi mandala zure ikaskideei, eta azaldu nola eta zergatik sortu dituzun mandalaren elementuak. Nahi izanez gero, zuk sortu duzun mandala koloreztatu dezakezu, edo alboko ikaskideari eman, hark koloreztatu dezan zuk berea koloreztatzen duzun bitartean.

